

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Nahiz eta aplikazioa gehienbat gazteei bideratuta egon, edonori zuzenduta egongo litzateke. Hala ere, gehienbat gazteak erabiltzeko diseinatuko genuke, teknologietan adituenak direlako eta sare sozialak erabiltzen dituztelako (hau garrantzitsua da, "influencerrak" arduratuko baitziren aplikazioa zabaltzez). Aitzitik, aplikazioan izena ematerako orduan, erabiltzaileak haien adina jarri beharko dute eta gainera ze urtetatik ze urtera arteko lagunak bilatu nahi dituzten. Hau da, bezeroak hamazazpi urte izango balitu eta hogei eta hamabost urte arteko lagunak bilatu nahiko balitu, izen ematerako orduan hori jartzeko aukera egongo litzateke.